

Dendaostekoak

Joxean AGIRRE

Alberto Manguelek bere “Historia de la lectura” liburuan kontatzen duenez, isilka irakurtzen ikastea aurrerapen izugarria izan zen kulturarentzat, inprentaren asmakizunaren tamainakoa. XV. mendearen bueltan eman zen urrats hori, eta badirudi eztarria urratuta zebiltzan sermolariak hasi zirela isilka irakurtzen, eta San Ambrosio aipatzen du aitizindarien artean.

Mangel bera ona izango zen ahots goraz irakurtzen, Borgesek aukeratu baitzuen bista galtzen hasi zenean liburuak irakur ziezazkion. Beti iruditu izan zait badirela ahots goraz oso ondo irakurtzen dutenak eta bagaudela negargarri irakurtzen dugunak. Gure aitona ez zen

Borges, baina gaixotu zenean, neu izan nintzen bere irakurlea. Tomas Agirre Barrensororen “Uztaro”, Txomin Agirreren “Kresala” eta Etxaideren “Joanak joan” irakurri nizekion, eta Orixeren “Euskaldunak” astunarekin saiatu nintzen. Kirmen Uriberen tonua edo Harkaitz Canoren ahotsa izan banitu, seguru nago liluraturik jarraituko zuela niri entzuten, baina gorrotoz begiratu eta «orain ere horrekin al hator?», esaten zidan.

Isilka irakurtzea orain lau mendeko asmakizuna izango da, baina isilka pentsatzea zaharragoa, hain zaharra non betidanik oso gaizki ikusiak egon diren beren kontura, beren golkorako hitz eginez kaletik zihoazenak. Ni, ordea, adinagatik edo ez dakit zergatik ezpainak mu-

gituz pentsatzen hasi naiz orain gutxi, eta jendeak begiratu egiten dit. iPhone bati konektatuta doazenek altuxeago hitz egiten dutela ikusirik, neuk ere igo egin dut ahotsaren tonua. Baina gauza bat da beren eguneroko gorabeherak “radiatuz” ibiltzea, eta oso besterik, ni bezala, agintarien kontra marmarrean. Atzo, oharkabea, Erkorekaren kontra hasi nintzen egundokoak esaten, eta jendeak harriduraz, eta larriduraz ere bai, begiratu egiten zidan. Berririo isilka pentsatzen ikasi beharko dut, ezen bescela arriskua dut “dendaosteko” talderen bateko kideztat har nazaten, nahiz eta gero, epailearen aurrera eramaten banaute, seguru asko adina aringarri moduan hartuko didaten. •

Neka-neka eginda bagaude ere

Maddi AIESTARAN

Udaltzainak motorrean pasatu direnean, oihu egin diete batzuek, txistu besteek. Umeak saltoka ari dira jendetzaren ertzean. Gurasoek ez dakite nora begiratu; urduri daude. Sei aldiz azaldu diete umeei zein izango den plana. “Kale bukaerako toldo gorridun tabernara iritsitakoan, tabernako atearen ondoko bizikleta-lekuan geratu geldigeldi”. Tabernariak kale izkinan pilatutako kristalezko basoak bildu ditu. Txaleko horidun zazpi txirrindulari datoz maldan gora. Jendea txaloka hasi da. Txistuka, pozez. Kale estuaren bi aldean arteko tarte zabaldutako beharrak gorputzak ondoratu ditu. Badator furgoneta. Musika sartu da kaleetara. Koloretako hizki erraldoiak furgonetan, gidariei

txaloak. Gidarien buruak leihotik kanpo. Txaloak. Ika, ika, ika! Salto egiten du jendeak, emozionatuta dago jendea. Taldeko hunkiberenei malkoak sikatzetik dizekion ondoko lagunak. Arnasestuka ari da ez-dakit-nondik presaka iritsi dena; baina prest dago. Udaltzain gehiago motorrean, kaskoak eta zurruntasuna. Eta atzetik, saltoak eta harrotasuna. Ahots bat bozgorailuetan; ahotsak kaleetan, balkoietan, pantailetan. Espero ez zuenari ere igo zaio eztarrira bulkada sustagarri bat. Hunkidura eztarrian. Salto! Bi esku, lekukoa, izerdi asko, esku gehiago eta emozioa. Batzuek lortu dute jendetzan tokitxo bat, ondokoaren zapatila zapaldu dute gehienek. Beste batzuek zain segitzen dute, ea tokitxorik baden. Besteek txaloka egingo diote jendetzari

harrera. Mugikorrak ikusten dira airean. Estropezu egin du norbaitek, ez da erori. Musika aurrera doa kalean. Salto! Gehien-gehienek erritmoa mantsotu nahi lukete. Gehien-gehienak gelditu egin dira kalea bukatzerako, kirolariek segitu dute aurrera. Txalo jo diete geldi daudenek. Tipi-tapa, tipi-tapa! Izerdia lehortu dute jertsearekin, eta lagunak bila abiatu dira, kale bukaerako toldo gorridun tabernako atearen ondoko bizikleta-lekura. Hantxe dago jende pila bat, geldi-geldi.

Korrika nekatu egiten da bat. Harro korrika eginda ere, nekatu egiten da bat. Ordea, neka-neka eginda bagaude ere, korrika egitera ateratzen gara bi urtero. Lan egitera ateratzen gara egunero-egunero. Harro egotekoa da hori. •